Kultura

Euskal letren nazioartekotzeak 25 urte (II) → Mende laurdeneko ibilbidea

25 urte joan dira Atxagak nazioarteko zirkuiturako zirrikitua zabaldu zuenetik, baina kritikari eta idazleen hitzetan, oraindik ere estua da bide hori, eta bakanak dira merkatu zabalera heltzea lortzen duten euskal idazleen lanak.

Itsasoratzearen argiak eta itzalak

Literatur kritikari eta idazleen hitzetan, egun ere maiz azalean musker baten irudia ageri duen Bernardo Atxagaren *Obabakoak* liburua da kanpoan gehien ezagutzen duten euskal literatura lana.

Iñigo Astiz

Idiliorik ez. Ez irudikatu, beraz, zelai eguzkitsurik, mende laurdena ez baita izan nahikoa malkarra higatzeko, eta malda da egun ere lehen malda izandakoa. Orain 25 urte zabaldu zuen lehen arrakala Bernardo Atxagak *Obabakoak* liburua argitaratuta, eta igaro da denbora euskal literatura nazioartekotze bidean hasi zenetik. Baina ez irudikatu zelairik. Malkarra izango da hemendik aurrerakoa ere. Izan ere, zorrotza da Atxagak berak orain gutxi egindako diagnosia. «Ingelesez aritzen ez diren idazle guztiek ikusgarritasun arazo bat dute. Gutxi hitz egiten da kolonialismoaz, baina gure kolonizazio gradua ikaragarria da, jateko dugun moduan, bidaiatzeko dugun moduan, eta baita irakurtzeko dugun moduan ere. Bere hedapenagatik, botereagatik, industria kulturalagatik, aberastasunagatik, ingelesezko literaturak gero eta zentraltasun handiagoa dauka». Eta ezin balorazio baikorregirik egin. Bakanak izan dira olatu orokor horren kontra nazioartean leku bat lortu duten euskal idazleak, eta estua da oraindik ere lehen estua zen pasabidea. 25 urteren ostean, *Obabakoak* da kanpoan oihartzunik handiena duen lana, eta 25 urteren ostean bakarka egin behar izaten du idazle bakoitzak nazioarterako bidea. Maldan. Kanpoan ere, ditxosozko galdera gainetik erabat kendu ezinik: «Zergatik idazten duzu euskaraz?».

Erdi beteta batzuetan, erdi hutsik besteetan. Bi ikuspegi horien artean omen dabil Estibalitz Ezkerra literatur kritikaria. Baikortasunaren eta eszeptizismoaren mugan. Urteak daramatza AEBetan literatura ikasi eta irakasten, eta, dioenez, 25 urteren ostean, oraindik ere Atxaga da unibertsitateetan irakasten den euskal egile bakarra. Eta horregatik zalantza. «Batzuetan, baikor nagoenetan iruditzen zait aukerak baditugula: nazioarteko merkatuan euskal literatura present dagoela, eta euskal poeta eta idazleen presentzia nahi dutela jaialdietan. Baina eszeptiko nagoenean, iruditzen zait izen jakin batzuk bakarrik nahi dituztela, eta euskalduntasunari buruz oraindik badirela aurreiritzi batzuk». Argi du euskal literaturak aurrera egin duela, baina argiekin batera, itzalak ere aipatzen ditu.

Exotismo egarria da nagusi nazioarteko merkatuan. Hori igartzen omen du Ezkerrak, behintzat, inguru anglosaxoian. Horren bila jotzen dute euskal literaturara. Eta horren bila Obabara. Kritikariak argi du ez zela hori idazlearen helburua, eta hori baino askoz gehiago dela liburuak eskaintzen duena, baina horixe da, halere, irakurleek aurkitu nahi dutena. Exotismo hori. «*Obabakoak*-en badago landa mundu bukolikoaren laudorio bat, baina baita kritika bat ere. Atzerrian, ordea, nagusiki laudorioari erreparatu diote. Eta hori da nazioartean euskal nortasuna: industrializazioa aurreko baserri mundu mitologiko hori. Eta horregatik, nazioartean euskal literatura saldu nahi duzunean, *Obabakoak revisited* moduko bat da eskatzen dizutena». Harkaitz Canorekin gertatutakoa aipatzen du frogatzat. «Renoko Unibertsitateak kaleratu zuen haren ipuin bat, eta kritika egin zioten *The New York Times*-en. Aipatzen zutenez, narrazio horietariko batzuk ez ziren benetan *euskal*, eta anglosaxoitzat har zitezkeen».

Bakarkako lana

Burbuila literario moduko bat egon ote den. Susmo hori du Kirmen Uribek. Berak zerbait igarri duela lehertzen, behintzat. Bera da azken urteotan nazioartean oihartzunik handiena izan duen euskal idazleetariko bat, eta dioenez, krisi sakonean dira, egun, orain arte martxan izan diren hedapen tresnak. Krisian literatur agenteak. Krisian hedabideak. Eta krisian nazioartekotzeko bideak ere. Baina, dioenez, bada gauza argi bat: exotismoarenak ibilbide motza duela, eta kalitatea dela ezinbesteko osagaia. Kalitatea, eta lana. «Nik hautua egin

32 » Bertsolaritzari buruzko tesia gauzatzeko deialdia egin du Mikel Laboa Katedrak

35 » 'Trance' genero beltzeko pelikula filmatu du Danny Boyle 'Trainspotting'-en zuzendariak

Euskal letren nazioartekotzeak 25 urte (II) → Mende laurdeneko ibilbidea

nuen literaturaz bizitzeko, eta aukera daukat bidaiak egin eta argitaletxeekin egoteko. Baita horrek sorkuntza orduak kenduko badizkit ere. Lan hori egin behar da».

Atxagaren lanak egindako bideak lagundu ote dion? Ezetz dio Uribek. «Ez nuke esango *Obabakoak*-en esperientziak nire lanen nazioartekotzea erraztu duenik. Inolaz ere ez. Kasu askotan ni ere oso bakarrik ibili naiz. Are gehiago: *Obabakoak*-en garaian, agian, errazagoa zen nazioartekotzea. Esparru horietara heldu zen lehen euskarazko lana izan zen Atxagarena. Eta *Obabakoak* liburuak, liburuaz gain, hizkuntza bat ere erakusten zuen kanpoan. Baina bide hori gero itxi egin da, eta liburu haren ondoren oso zaila izan da kanporako bidea. Literatura bai erraztu digu belaunaldi horrek: Bernardo Atxagak, Ramon Saizarbitoriak, Anjel Lertxundik, Iñigo Aranbarrik, Koldo Izagirrek, Jokin Muñozek.... Haiei esker badugu hizkuntza literario bat, sistema literario bat, baditugu argitaletxeak, irakurleak... Baina kanpora begira, ez dut uste esperientzia horrek bidea askorik erraztu digunik».

Tarteko gune batean ikusten du euskal literatura Ramon Saizarbitoria idazleak. Ez erabat garatuta, baina ezta erabat hasi berritan ere. Bi muturren arteko punturen batean. Zenbait gaixotasunen iraupenerako tarterik txarrenean, zehaztu duenez. «Herrialde garatuetan bada higiene egoki bat izateko eta txertoak erosi ahal izateko nahikoa diru. Eta garatu gabeko herrialdeetan autoimmuneak izaten dira. Tartean

Exotismo bila jotzen du euskal literaturara merkatu anglosaxoiak, Ezkerraren ustez

Uribek dioenez, 'Obabakoak'-en erreferentziak ez du kanpoan lagundu

Nazioartekotzeak euskara tarteko urrats bilakatuko ote duen beldur da Saizarbitoria

diren herrialdeetan dago zenbait gaixotasunen iraupenaren arazoa. Garapenaren eta azpigarapenaren kalte guztiak izaten dituztelako. Euskaldunok ezagutzen dugu zer den garapenaren eta azpigarapenaren artean ibiltze hori, eta hori gertatzen da euskararekin ere. Azpigarapenaren gaitzak baditugu, eta aberatsen gaitzak ere bai». Eta hori da literaturaren nazioartekotzeari ikusten dion koska. Horrek ematen dio beldurra. Garapenarekin txikitasunaren alde onak ere desagertuko direneko zalantza horrek. Merkatuaren legeei jaramonik egin gabe sortu ahal izateko askatasuna galtzeak.

Kasu jakin bat ere aipatu du sintoma modura. Beste idazle bati entzundako esaldi bat. «Bere pertsonaien izenak hautatzerakoan, izen horiek gazteleraz nola funtzionatuko duten pentsatzen duela aitortu zidan behin. Eta harrituta gelditu nintzen. Pentsatu nuen: ostia!».

Madrilen zentraltasuna

Kritiko mintzo da Ezkerra ere. «Madrileitik eta gazteleratik pasatu behar duzu nazioartera heltzeko, agente literario eta itzultzaile gehienek ez baitakite euskararik». Eta ez soilik agente eta itzultzaileek. Dioenez, badira euskararik jakin gabe euskal literatura irakasten dabiltzan unibertsitateko irakasleak ere. «Niri kuriosoa eta ironikoa iruditzen zait azken bost-sei urteetan akademian sortu den mugimendu ustez antikolonialista. Ikasteko Hispanikoak zirenak, Ikasketa Iberikoak bilakatu dituzte orain, erakusteko Iberiar penintsulan hizkuntza ezberdinak daudela, baina, halere, jarraitzen dute kanon berbera sustatzen. Eta jarraitzen dute Madril inperioaren erdi-erdian jartzen. Oraindik ere han erabakitzen dute zer den kanona eta zer ez. Madrilgo sariek erabakitzen dute zein den nazioarteko kanonetan sartuko den idazlea. Eta tranpa bat iruditzen zait horregatik Ikasketa Iberikoen kontzeptu hori, lehengo estrategia bera erabiltzen jarraitzen dutelako orain ere». Eta Ipar Euskal Herriko idazleak bazter uzten ditu horrek, noski. Hori da Ezkerrak sumatzen duen giroa.

Halako bat entzun zion orain gutxi Ikasketa Iberikoetako irakasle bati. Euskara irakatsi eta irakurri ahal izateko euskara jakin beharrik ez zegoela esan zion. «Akademiko batek hori esatea ez da onargarria. Zure irakasgaietan Atxaga, Uribe edo Cano sartzen dituzunean, eta haiek euskaraz irakurri beharrik ez duzula iruditzen bazaizu, hori krimen bat da. Ingelesarekin ezin duzu halakorik egin; zergatik bai euskararekin? Hizkuntza minoritarioa delako. Eta hori bultzatzen da Madrildik. Ez dela euskara jakin beharrik euskal letrez aritzeko».

Tramitezko euskara

Eta muturtze bidean da joera hori, Saizarbitoriaren iritziz. Euskaraz argitaratzea tramite bilakatze bidean dela. «Benetako epaia heldu bitarteko pauso bat baino ez». Horregatik omen da uzkur aldaketekiko. Txikitasun hori galtzea galera handia iruditzen zaiolako berari. «Berez ona da arazo hau», onartu du. «Fenomeno ona da, berez, eta garapenaren erronka horri aurre egin beharko zaio. Baina argi dago onetik bakarrik ez digula ekarriko».

Obabakoak lanak eta Bernardo Atxagaren profesionalizazioak bi aro banatzen dituela uste du Saizarbitoriak. Mugarri dela. «Lehena izan da horretan Atxaga, eta estilo bat markatu du. Eta, gainera, eutsi egin dio bai hemen eta bai kanpoan funtzionatzeari. Ikusi egin beharko da jende gehiago agertzen joan ahala haiek ere eutsiko ote dioten horri. Atxaga bi munduetan eroso dabil. Baina ez dakit hori izango ote den datozen idazleen kasua».

Bihar: Nazioartekotzearen osteko idazle belaunaldia.

↓ Inkesta

Zer nabarmenduko zenuke euskal literaturaren nazioartekotzeaz?



«Denborak erakutsi digu ez dela erraza kanpoan arrakasta lortzea»

Xabier Mendiguren
Editorea eta idazlea

«'Nork aterako dizkigu eltzetik babak?', ari gara galdetzen. Obabaren ondotik, nazioartera jauzi egitea pauso natural samarra izango zela espero zuten askok; geroak erakutsi digu lehia oso estua dela, eta ez dela batere erraza kanpoan arrakasta lortzea, norbere testuak onak izan arren. Zer behar da? Gauza asko, seguru asko: itzultzaileak trebatu, hainbat hizkuntzatan; kanpoko argitaletxeekiko bideak samurtu; idazle batzuk promozionatu... bide horiek guztiek inbertsio bat eskatzen dute, argi dago, orain artekoa baino handiagoa. Gero, aukera inportante bat egin beharra dago: Espainiaren eta espainolaren bitartez plazaratuko gara mundura, horrek ezinbestean dakarren galbahe ideologikoarekin, ala zuzenean saiatuko gara jauzia egiten? Erakundeak erakunde, beldur naiz, aurrerantzean ere, itzulia izateko gogo handia duenak, berak atera beharko dituela eltzetik babak».

«Espainiako egitura literarioa bihurtu da nazioarterako zubi»

Iratxe Retolaza
Literatur kritikaria

«Nazioartekotzearen fenomenoarekin batera, oro har, hiru logika hedatu dira azken hamarkadetan: sortzaileek nolabait 'itzulgarritasuna' gogoan izanda idaztea; kanpoko kultur eragileak eta irakurleak erakartzeko gaiak jorratzeko premia aldarrikatzea; Espainiako Estatuko egitura kultural eta literarioak bihurtzea nazioarteko bidea egiteko zubi nagusi. Hiru logika horiek ez datoz bat nire literatura ikuspegiarekin, eta, gainera, arriskutsu ere iruditzen zaizkit, sormen literarioa testuinguru soziohistoriko eta kulturaletik deslotu egiten baitute. Eta horrek ekarpen literarioak dinamika historiko eta kulturaletik at koka ditzake, kultura ezezagunago hori espektakulu bihurtuz (Anton Figuero ikertzaileak ohartarazi bezala). Armando Gniscik merkatu ikuspegiaren mende ez dagoen munduen literatura aldarrikatu izan du, herrien arteko zubiak eraikitzeko, merkantziaren logika horretatik kanpo. Euskal literaturan ere halako urratsak egin dira, baina, nire ustez, diskurtso eta ikuspegi gehienak hiru logika horietarantz lerratu dira, zoritxarrez».

«Amestu ere ez genuen egiten hain sistema literario sendoarekin»

Mariasun Landa
Idazlea

«Baikorra naiz. Ni euskalduntzen hasi nintzen garaian amestu ere ez genuen egiten halako sistema literario sendoa izango genuenik. Kanpora heldu da euskal literatura, izan dira harremanak beste hizkuntzekin, eta Europan izan naizenetan ikusi dut hainbat unibertsitatetan badirela zenbait irakurle ere. Nik kezka dut orain, krisiaren kontuarekin, nekez lortutako egitura hori ahulduko ez ote den. Adostu egin behar dira estrategia batzuk epe luzerako, eta baita ere jarri behar dira epe motzerako helburutxo batzuk. Eta sistema literarioaren parte diren elementu guztiak indartzea behar luke estrategia horren ardatza: argitaletxeak, irakurlegoa, idazleak... Nik faltan sumatu izan dut agente literarioaren figura, baina daukagun neurria ikusirik, eta noraino heldu garen oharturik, pentsatzen dut zerbait lortu dugula denbora honetan».